

EUSKARALDIA

HITZEZ EKITEKO GARAIA

Azaroaren 18tik abenduaren 2ra

Kaixo, guztioi:

Euskaraldirako bi aste eskas falta diren honetan, honako galdera hauei erantzuteko argibideak eta baliabideak ematea da mezu honen helburua: **Zer egin beharko genuke hemendik eta Euskaraldia hasi bitartean? Zertan jarri beharko genuke fokua?**

1. HERRITARREN IZEN-EMATEA

- Gure entitateko (elkarte, talde, denda, enpresa, federazioa...) **KIDE GUZTIEI** Euskaraldian izena emateko deia zabaldu!
- **Ariguneetako kide izan zein ez, izena ematea** edo parte-hartzea berrestea garrantzitsua da.

Horretarako,

- **URL propioa** duzuenok, **zabaldu zuen entitateko KIDE GUZTIEN artean**.
- Gainontzekoek, zabaldu honako esteka:
<https://izenematea.euskaraldia.eus/>
- Deia egiteko oinarrizko **mezu eredu bat intraneten** duzue (*intranet >> edukiak >> izen-emateari lotutakoak >> izen ematea baliabideak*)
- **.Erabili zuen ohiko komunikazio bideak** deia egiteko (zirkularrak bidali; intraneta baliatu; entitateko paneletan edo kafe makinaren alboan, QR kodea duten kartelak jarri...)

2. PRESTAKUNTZA

- Euskaraldia **ariketa praktiko** bat dela ez dezagun ahaztu!
- Zabal ditzagun, beraz, ariketa egiteko lagungarri diren **BALIABIDEAK** gure kideen artean (*intranet >> edukiak >> izen-emateari lotutakoak >> izen ematea baliabideak*):
 - **Ahobizi/belarriprest izatea erabakitzekeko ibilbideak** (infografiak)
 - Ahobizi/belarriprest izango direnentzako **aholkuak**
 - **Ahobizi/belarriprest bideoa**
 - ...
- Ordainpeko **prestakuntza saioak** ere aukeran dituzuela gogorarazten dizuegu

I

3. KOMUNIKAZIOA

- Euskaraldiaren baitan izandako **lorpen eta erronken bideoak zabaldu sareetan**
 - Galdera hauetako bati (edo biei) erantzuten dioten bideoak lirateke:
 - Zer lortu dugu entitate bezala edo entitate kide bezala Euskaraldiaren bitartez?
 - Zein izango da gure erronka entitate bezala edo entitateko kide bezala aurtengo Euskaraldian?
 - **@euskaraldia edo/eta #HitzezEkitoko sartu** argitaratzean, guk ere zabaltzeko.
 - Webgunean ere gune bat sortuko dugu bideo horiek biltzeko
- Euskaraldiko 15 egun horietan egingo dituzuen **agerraldien/ekitaldien berri eman koordinazio lan taldeari**
 - **Hedabideei horien berri emango diegu** jarraipena egiteko aukera izan dezaten

Guri horien berri emateko ohiko helbidea erabili:
entitateak@euskaraldia.eus

.....

Jantzi ditzagun kaleak... Euskaraldiarekin!

Euskaraldia ikusgarriago egiteko, eta, bide batez, **euskaltzaleen mugimendua baliabidez indartzeko**, gure etxe, elkarte, eraikin publiko eta lantegietako leiho eta balkoietan banderak jartzeko proposamena luzatzen dizuegu.

Oraindik ere garaiz zaudete eskaerak egiteko!!!

Banderatxoak eskuratzeko moduak:

- [Online dendan](#) eskaera egin
- [Inprimaki HAU beteta](#) (10etik gora eskatzeko)



Jarrai dezagun bidea elkarekin egiten!

Hitzetz ekiteko garaia da!

Euskaraldiko Koordinazio taldea



[Harpidetza utzi](#) | [Zure harpidetza kudeatu](#)
entitateak@euskaraldia.eus